

MARI PURI HERRERO

María Purificación Herrero Martínez de Nanclares (Bilbo, Bizkaia, 1942ko abenduaren 10a) euskal herritar artista margolari, eskultore eta grabatzailea da. 1978an Bilboko Aste Nagusiaren ikurra den Mari Jaia sortu zuen.

Mari Puri Herreroren aita Bilbokoa eta ama, aldiz, Artziniegakoa izan zituen. Bilbon jaioa, Moyua plazatik hurbil bizi zen. Hiru anai-arreben artean erdiko. Hirian hazi bazen ere, herria hurbiletik bizi izan zuen, amona sarritan bisitatzen baitzuen Artziniegan. Udak Donostian igarotzen zituen familiarekin.



Bilbon ezkondu eta ume bat izan zuen. Familiarekin bizitza Euskal Herria, Paris eta Madril artean pasa du.

Margolaria da Herrero funtsean baina serigrafia edota xilografia bezalako arlo batzuetara ere hurbildu da. Arte figuratiboa landuz, bere pertsonaiek zertzelada umoristikoa eta errealismoa erakusten dute. Natura eta paisaiak ere gai nagusi bezala ageri dira bere margolanetan.

1980 eta 1990eko hamarkadetan bakarkako zein taldekako erakusketak egin zituen grabatuaren alorrean gehienbat. Bere lanik ezagunena Marijaia da. Bilboko Aste Nagusiko jai-batzordeak eskatuta, 1978ko abuztuan sortu zuen eta bost egun behar izan zituen diseinatzeko. Bere obrek nazioarteko erakusketatan egon dira. Bilboko Arte Ederretako Museoaren batzordekide izan zen artista, eta gainera, museo hori Herreroren askotariko lanen fondo baten jabe da.

1. Zein da Mari Puri Herreroren benetako izena?

2. Zenbat urte ditu Mari Puri Herrerok?

3. Nongoa da Mari Puri?

4. Nongoa da Mari Puriren amona?

5. Non pasatzen zituen udak Mari Purik?

6. Zenbat anai-arreba ditu?

7. Zergatik da ezaguna Mari Puri?

8. Noiz sortu zuen Mari Jaia?

9. Zenbat seme-alaba izan ditu?

10. Zein hirietan bizi izan da Mari Puri?